

**Por la información y la consulta a los ciudadanos: parad el TAV  
AHT gelditu! Informazioa eta kontsulta**

[Euskaraz](#)

Ante el proyecto de construcción del corredor navarro de alta velocidad o de altas prestaciones, que incluye la conexión con la Y vasca a través de Sakana, este valle exige saber del Ministerio de Fomento y del Gobierno de Navarra porqué tiene que pagar con su territorio esta infraestructura, cuál será realmente el beneficio para el resto de los ciudadanos de Navarra, Vascongadas o del resto del Estado y cuál es el precio económico, social, territorial y ambiental.

Solicitamos información, pero no información de quién contrata, quién ejecuta, quién gestiona, de si lo hace el Ministerio o el Gobierno de Navarra; no necesitamos información de cuándo se hará o por dónde pasará. NO. Este pueblo solicita información sobre los costos y beneficios del Tren de Alta Velocidad (TAV): los impactos sobre la salud humana, como el electromagnetismo y los ruidos. Los impactos sobre la naturaleza, sobre la fauna o la hidrología. ¿Qué necesidad social hay de la construcción de esta mega-infraestructura? ¿Cuál es su rentabilidad social? No tenemos información sobre lo que nos costará su construcción, su mantenimiento, ni previsión de precios por uso; se nos ocultan datos sobre los costos reales a cada ciudadano, sobre la previsión de amortización, de uso de pasajeros o mercancías, de ahorro de tiempos, de descongestión de las carreteras. El derroche energético provoca el cambio climático y los ciudadanos tenemos que ahorrar. ¿Cuánta energía ahorrará este tren? ¿Y qué sucederá con las actuales vías férreas? Tenemos mucha información sobre las infraestructuras para el transporte, pero ¿dónde está la política de gestión de la movilidad de Navarra?

Son muchas preguntas sin respuesta. Este es un proyecto ineficiente en lo económico, injusto en lo social e insostenible en lo ambiental. Por ello, solicitamos al Ministerio de Fomento que respete a la voluntad ciudadana, popular, rural; que respete nuestro entorno natural; y que se adecúe a las políticas medioambientales europeas y estatales. Solicitamos también al Gobierno de Navarra que desista de su iniciativa de adelantar las obras; que abra un debate social sobre las necesidades reales en nuestra comunidad de este tipo de infraestructuras; y que revise el Plan Energético de Navarra – Horizonte 2010, para que esta Comunidad sea solidaria en la lucha contra el cambio climático. Por último, solicitamos al resto de Ayuntamientos y Concejos de Sakana, así como a su Mancomunidad que den la oportunidad a sus habitantes de informarse sobre el TAV, facilitándoles los medios necesarios para

ejerger este derecho; y que exijan información al Gobierno y al Ministerio de Fomento, así como que hagan respetar ante dichas instancias la voluntad de sus habitantes.

Señores, no basta con ofrecer cemento y altas prestaciones. Hay que dar soluciones a los problemas actuales y reflexionar sobre este modelo de crecimiento que está provocando:

- el **agotamiento de nuestros recursos**
- la **desruralización y el desequilibrio territorial** que se está produciendo en Navarra a favor de la Comarca de Pamplona
- la **dependencia** externa, económica y energéticamente
- el **cambio climático**. Hay que resolver el problema del **transporte y la hipermovilidad**, centrándonos en las causas que lo originan, gestionando la demanda, y no solamente gestionando la oferta de sistemas de transporte como se ha hecho hasta ahora.
- **impactos** negativos sobre nuestra salud y el medio ambiente

No queremos regalos ni ofertas de maquillaje a cada pueblo a cambio de una nueva vía férrea que nos separará más y aumentará los anteriores problemas. Nuestros recursos son limitados; por eso queremos que el dinero de este proyecto se aproveche en mejorar la calidad de vida de las personas y de nuestros pueblos, dando respuesta a los principales problemas sociales a los que nos enfrentamos, empezando por la sanidad, la educación o la vivienda.

No necesitamos acelerar nuestros modos de vida, **no tenemos prisa**. Dejados vivir y respetad la tierra que nos vió nacer y en la que tendrán que vivir nuestros hijos, pues es la única que tenemos.

Irurtzun, a 12 de junio de 2007

AHTgelditu! Elkarlana – Sakana

## **AHT gelditu! Informazioa eta kontsulta**

Euskal Y-arekin Sakanaren barrena egingo den loturaren aurrean, bailara honek Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren eskutik jakin nahi du zergatik ordaindu behar duen bere lurraekin azpiegitura hau, zein izanen den benetako onura Nafarroan, EAEn edota Estatuan bizi diren gainontzeko herritarrendako, eta zein izanen den ordaindu beharreko prezioa ekonomikoa, soziala, lurraldezkoa eta ingurumenekoa.

Informazioa nahi dugu, baina ez dugu jakin nahi nork kontratatu duen, nork exekutatzen duen, nork kudeatzen duen, ea Espainiako Ministerioak egiten duen ala Nafarroako Gobernuak. Ez dugu jakin nahi noiz egingo den edo nondik pasatuko den. EZ. Herriak jakin nahi duena da Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kostuak eta onurak zeintzuk izanen diren: giza osasunean izanen duen eragina —elektromagnetismoa eta zarata, esate baterako—. Naturan, faunan edota hidrologian izanen duen eragina. Mega-azpiegitura bat eraikitzeke zer behar dago gizartean? Zein da bere errentagarritasun soziala? Ez dakigu zenbait diru kostatuko duen eraikuntzak, mantenuak, eta erabilerarako aurreikusi diren prezioak. Herritar bakoitzarendako ekarriko duen kostua ezkutatu egiten digute, amortizaziorako egin den aurreikuspena, merkantziendako edo bidaiaren erabilera, denboraren aurrezpena, errepideen arintzea. Energia xahutzeak aldaketa klimatiko dakar eta, alde horretatik, herritarrok aurreztu behar dugu. Zenbat energia aurreztuko da tren honen bidez? Zer gertatuko da egungo trenbideekin? Garraio azpiegiturei buruzko informazio zabala dugu, baina zer gertatzen da Nafarroako mugikortasun politikarekin?

Erantzunik gabeko galdera asko dira. Proiektu hau ekonomikoki ez-eraginkorra da, sozialki injustua eta ingurumenari dagokionez jasangaitza. Horregatik, Sustapen Ministerioari eskatu nahi diogu herritarren nahia errespetatu dezan, gure natur ingurua errespetatu dezan eta Europako zein Estatu ingurumen politiketara egokitu dadin. Nafarroako Gobernuari eskatu nahi diogu obrak aurreratzeko asmoarekin atzera egin dezan, eta azpiegitura hauen benetako beharra zein den horri buruzko eztabaida sor dezan, eta *Nafarroako Energia Plana-Muga 2010* berrikus dezan eta horrela erkidegoa aldaketa klimatikoaren aurkako borrokarekin bat egin dezan. Azkenik, Sakanako udalei zein mankomunitateari eskatzen diegu aukera eman diezaieten herritarrei AHTri buruzko informazioa eduki dezaten eta horretarako beharrezkoa diren bitartekoak eskaini diezaieten. Eskatzen diegu ere Nafarroako Gobernuari eta Sustapen Ministerioari informazioa exijitu diezaieten, eta, halaber, herritarren nahia errespetarazten horien aurrean.

Jaun-andreok, ez da nahikoa porlana eta goi mailako prestazioak eskaintzea. Egungo arazoei irtenbidea bilatu behar zaie eta garapen ereduari buruz hausnartu. Izan ere, garapen eredu horrek hainbat ondorio ditu; hona:

- Gure baliabideak agortzen ari dira.
- Landa ezaugarriak galtzen ari dira eta Iruñerriaren aldeko antolamendu desoreka gertatzen ari da.
- Kanpokoekiko mendekotasuna, bai ekonomikoki eta bai energetikoki.
- Aldaketa klimatikoa. Garraioaren eta hipermugikortasunaren arazoak konpondu behar dira, eta, horretarako, zergatiak aztertu behar ditugu, eta ez, orain arte bezala, garraio bideen eskaintzari bakarri erreparatu.
- Eragin negatiboak gure osasunean eta ingurugiroan.

Ez dugu oparirik nahi ez eta makillaje-eskaintzarik gehiago bereiziko gaituen eta aipatutako arazoak areagotuko dituen trenbidearen truke. Gure baliabideak mugatuak dira. Horregatik, egitasmo horren dirua gure herrien eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko erabiltzea nahi dugu, eta dauzkagun gizarte arazo handienei erantzuna ematea: osasungintza, hezkuntza edota etxebizitza.

Gure bizimodua bizkortzeko beharrik ez dugu, ez dugu presarik. Utzi bizitzen eta errespetatu jaiotzen ikusi gintuen lurra eta gure seme-alabendako geratuko dena, hori baita daukagun bakarra.

Irurtzunen, 2007ko ekainaren 12an

AHT gelditu elkarlana-Sakana